



2008KO UZTAILAREN 16KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zortziko uztailaren hamaseian, arratsaldeko sei terdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi eta Iñaki Saldaña Herrero.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2008ko ekainaren 11n egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2008ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 7 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA BERROGEITA HAMASEI MILA LAUEHUN ETA HIRUROGEITA HIRU EURO ETA BERROGEITA BAT ZENTIMO (156.463,41 €, -)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- ARERIAKO EKIPAMENDU ESZENIKOAREN 4. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Areria eraikineko ekipamendu eszenikoaaren lanen obra zuzendaritza daraman Udal Arkitekto Teknikoak, lan hauen laugarren egiaztatgia luzatu du. Laugarren obra egiaztargiri honen zenbatekoa EHUN ETA BI MILA HIRUREHUN ETA LAU euro eta HOGEITA HIRU zentimotakoa (102.304,23 €) da. Lan hauek Chemtrol Division Teatro, S.A. enpresa ari da burutzen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, eta guztien adostasunarekin, obra egiaztargiri hau onartzea erabakitzen du.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 247 zbk.dun esped.: astean 6 egun eta egunean 3 orduko zerbitzua ematea. Hiru onuradun izanik, onuradun bakoitzak ordu bat ordainduko du ondorengo aportazioekin: %61, %8, %15. Espedientean zehaztuta dago zein onuradunek ordaintzen duen zenbateko bakoitza.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 2008-1-003 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairua ordaintzeko hilean 290,00 € ematea, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

- 755 zbk.dun esped.: uztailean etxebizitzaren alokairu eta mantenimenduko dirulaguntzak etetea, onuradunak ezarrita zauzkan betebeherrak ez egiteagatik.

Udal tasen arloko dirulaguntzak.-

2007 urteko udal tasen arloko laguntzen inguruan eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, udalak daukan ordenantzaren aplikazioz, ondorengo dirulaguntzak onartzea:

IZEN ABIZENAK

PORTZENTAIA

DIRULAGUNTZA

ESP.ZBK. 11	75	107,70€
ESP.ZBK. 6	50	115,5€
ESP.ZBK.15	100	245,64€
ESP.ZBK. 2	75	132,93€
ESP.ZBK.10	75	198,20€
ESP.ZBK. 7	75	135,39€
ESP.ZBK. 9	75	144,74€
ESP.ZBK. 1	75	118,29€
ESP.ZBK.12	75	174,9€
ESP.ZBK.13	100	154,63€
ESP.ZBK. 3	75	100,73€
ESP.ZBK. 8	100	161,3€
ESP.ZBK. 5	75	80,64€
ESP.ZBK.15	50	120,73€
GUZTIRA		1.991,32 €

V.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Lazkao Txiki Musika Eskolari, ikasturte amaierako kontzetua dela eta, kultura batzordeburuak egindako dirulaguntza proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bere partaide guztien adostasunarekin, mila bederatziehun eta berrogeita hamaika euro eta hogeitazentimotako (1.951,20 €) dirulaguntza ematea erabakitzen du.

Goierriko HITZA egunkariari, bere egunean izenpetu zen hitzarmenean adostatutakoari jarraiki, hau da, biztanleko 2 €ko dirulaguntza ematea, 2008 urteari dagokion dirulaguntza ematearen kultur batzordeburuak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bere partaide guztien adostasunarekin, 2008 urterako hamar mila bostehun eta hirurogeita bi (10.562 €) euroko dirulaguntza onartzea erabakitzen du. Dirulaguntza hau bakoitza %50eko bi zatitan ordainduko da.



Errotulua euskaraz jartzeagatik.- Idoia Noain Otegik, N.A.N. zbkia. 72.452.927-Y duenak, Elasegi 3an kokatzen den Kolore Inprimategia merkataritza lokalaren errotulua euskara hutsean jartzeagatik dirulaguntza eskatu du.

Eskaera honen aurrean, errotuluak euskara hutsean jartzeagatik udal honek araututa dauzkan dirulaguntzak kontutan izanda eta Euskara Batzordeburuaren proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, guztien adostasunarekin, hirurehun (300 €) euro-tako dirulaguntza ematea erabakitzen du.

Mintzalaguna proiektuari.- Goierriko Euskal Eskolari, 2008ko urtariletik ekaina bitartean Mintzalaguna Proiektua aurrera eramateagatik, Euskara Batzordeak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, guztien adostasunarekin, sei mila lauhun eta zortzi euro eta berrogei zentimotako (6.408,40 €) dirulaguntza ematea erabakitzen du.

Beneditarren artxibategia.- Udal honek hitzarmena izenpetuta dauka Lazkaoko Aita Beneditarrekin, Konbentuaren aldamenen artxibategi-liburutegia gordeko duen eraikina eraikitzeko. Hau horrela, 2008ko aurrekontuan ere Beneditarren artxibategia eraikina finantzatzeko partida jasota dago.

Guzti hau honela eta Beneditarrek udal honetan aurkeztutako eraikin hori eraikitzeko azterketa geologiko-geoteknikoko faktura ikusi ondoren, Tokiko Gobenu Batzarrak, guztien adostasunarekin, Aita Beneditarrei faktura horren zenbateko bereko, hau da, bost mila lauhun eta hirurogeita hemeretzi euro eta hirurogeita hemezortzi zentimotako (5.479,78 €) dirulaguntza ematea onartzen du.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hogeita bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



